



**AKORDIOA, ARABAKO ESGRIMA FEDERAZIOKO DIZIPLINA ARLOKO
EPAILE BAKARRAK 2015EKO OTSAILAREN 2AN EMANDAKO
EBAZPENAREN AURKA [REDACTED] JAUNAK JARRITAKO ERREKURTSOA
ONESTEN DUENA.**

Espediente-zenbakia: 1/2015

AURREKARIAK

Lehenengoa- [REDACTED] jaunak, 2015eko urtarrilaren 9an, errekurtsua aurkeztu du Arabako Esgrima Federazioko Diziplina Arloko epaile bakarrak 2015eko urtarrilaren 2an emandako ebazpenaren aurka. Ebazpen horren bidez, Arabako Esgrima Federazioko Diziplina Arautegiko 16.1.e) artikuluan aurreikusitako zehapena ezarri zaio.

Egun horretan bertan, [REDACTED] jaunak, SAARVI esgrima klubeko presidentea den heinean, idazki bat aurkeztu du. Horren bidez eskatu du Kirol Justiziako Euskal Batzordeak aipatutako errekurtsuan bitarteko aritzeko eta errekurritutako ebazpena bertan behera uzteko.

Bigarrena.- Kirol Justiziako Euskal Batzordeak (hemendik aurrera KJEB) erabaki zuen errekurtsu hau izapidetzeko onartzea, Arabako Esgrima Federazioari espedientea eskatzea eta federazio, kirol-erakunde eta pertsona interesdunei entzunaldi-izapidea ematea.

Hirugarrena.- 2015eko otsailaren 19an, Arabako Esgrima Federazioak igorritako espedientea jaso da. Horrekin batera, aipatu Federazioko presidentek eginiko alegazioen idazkia igorri da, baita lehiaketako



zuzendariak berretsitako "Arabako V. Superkoparen gorabeherak" dokumentuaren edukia ere.

Laugarrena.- Azkenik, adieraztea, KJEB honek 2015eko martxoaren 16an hartutako erabakiaren bidez, eta, errekurtsio-egileak hala eskatuta erabaki zela bertan behera uztea Arabako Esgrima Federazioko Diziplinako epaile bakarrak 2015eko apirilaren 2an emandako ebazpena. Horren bidez, errekurtsio-egileari zigorra ezarri zitzaion, zehazki, urtebetez probak edo lehiaketak egin bitartean kirol-instalazioetara sartzeko debekua.

ZUZENBIDEKO OINARRIAK

Lehenengoa.- Kirol Justiziako Euskal Batzordeak du errekurtsio hau aztertze eskumena, hala xedatzen baitute ekainaren 11ko 14/1998 Legeak, Euskal Autonomia Erkidegoko kirolari buruzkoak, 138.a) artikuluan, eta urriaren 18ko 310/2005 Dekretuak, Kirol Justiziako Euskal Batzordea arautzen duenak, 3.a) artikuluan.

Kirol Diziplinako epaile bakarraren aurkako errekurtsioa Kirol Justiziako Euskal Batzordean aurkeztu zen, Arabako Esgrima Federazioko Diziplina Arautegiaren 40.1 artikuluan ezarritakoarekin bat etorritik -Euskal Herriko Kirol Erakundeen Erregistroan inskribatuta- eta Arabako Foru Aldundiaren maiatzaren 26ko 215/10 Foru Aginduak onetsi ondoren. Honako hau xedatzen du:

1.- Zehapen-ebazpen honen aurka, interesdunek errekurtsioa aurkeztu ahal izango dute Euskadiko Esgrima Federazioaren Apelazio Batzordean. Horretarako, bost egun balioduneko epea izango dute. Euskadiko Esgrima Federazioak bere Estatutuetan edo Diziplina Arautegietan Apelazio Batzorderik ez badu, adierazitako errekurtsioa



Kirol Justiziako Euskal Batzordean jarriko da bost egun balioduneko epean.

Euskal Autonomia Erkidegoko Kirol Erakundeen Erregistroan ez dago Euskadiko Esgrima Federazioko Estatutuen inskripziorik, ezta dagokion Diziplina Arautegiarena ere. Beraz, adierazitako artikulua arabera, Batzordeari dagokio aurkeztutako errekurtsua ebatzea.

Bigarrena.- Errekurtsu honetan adierazten diren gertaerak 2014ko azaroaren 22an jazo ziren, Arabako V. Superkopa egin bitartean. Lehiaketa horren zuzendari teknikoaren txostenean honako hau adierazten da:

SAARVIko [REDACTED] entrenatzailearen eta nire artean arautegiaren inguruan liskarra (ahoz) izan ondoren, AEFko [REDACTED] entrenatzailearengana jo nuen (lehiaketako jaurtitzaila). [REDACTED] (e)k berretsi egin zuen nik esan nahi niona. [REDACTED] (e)k berriz ere ukatu zuen. Beraz, [REDACTED] tematu egin zen. [REDACTED] (e)k aurre egin eta bultza egin zion [REDACTED] (r)i. Nik, zuzendari tekniko eta gertaeraren lekuko naizen heinean, txartel beltza atera nion momentuan bertan.

Gertaera horrek are gehiago haserretu zuen, eta oihuka hasi zen alde egingo zuela esanez, ez zuelako txartel beltza ateratzeko inolako eskubiderik, [REDACTED] (e)k zirikatu zuelako, eta, beraz, ez zuela instalazioetatik alde egingo. Nik esandakoa egin ezean, poliziarri deituko niola esan nion. Eta erantzun zidan hala egiteko, berak ez zuelako alde egiteko asmorik.

Une hartan, eta ikusita ezinezkoa zela lehiaketarekin normaltasunez jarraitzea, poliziei deitu nien, eta momentu horretan alde egin zuen



██████████ (e)k instalaziotik, ni poliziekin telefonoz hitz egiten ari nintzela.

15 bat minutu geroago, polizia-agenteak agertu eta egoeraren berri eman nien ██████████ (SAARViko presidentea) aurrean zela. Nire lekukotasuna eta ██████████ (r)ena (bultzada jasotzeagatik) emateko eskatu ziguten, eta bioi hartu zizkiguten datuak. ██████████ (e)k eremutik alde egin zuenez, besterik gabe joan ziren, eta berriz agertzen bazen, deitzeko esan zuten.”

Zuzendari teknikoaren txostenean jasotako gertaerengatik, Arabako Esgrima Federazioko Diziplinako epaile bakarrak espedientea ireki zuen 2014ko abenduaren 4an. Diziplina Arautegiko 37. artikuluan aurreikusitako ezohiko prozeduran bideratu zen, eta espedientatuari hiru eguneko epea eman zioten alegazioak aurkeztu eta frogatzeko egokitzat jotzen zituen bitartekoak proposatzeko.

Espedientatuak alegazioen idazkia aurkeztu zuen, eta Kirol Diziplinako epaile bakarrak 2015eko urtarrilaren 2an emandako ebazpenaren bidez, aipatu Arautegiko 16.1.e) artikuluan aurreikusitako zigorra ezarri zitzaion, AEFren Diziplina Arautegiko 15.1.h) artikuluan jasotako falta oso astuna egiteagatik, zehazki, urtebetez probak edo lehiaketak egin bitartean kirol-instalazioetara sartzeko debekua ezarri zitzaion.

Hirugarrena.- Kirol Justiziako Euskal Batzordeak aurkeztutako errekurtsioan, errekurtsio-egileak eskatu zuen AEFko Diziplinako epaile bakarrak ezarritako zigorra baliogabetzea, aurka egiteko arrazoi hauek oinarri hartuta:



- Diziplina-espedienteari hasiera ematen dion ebazpenak akats formalak ditu, ez baitu zigilurik, irteera-erregistrorik, sinadurarik eta espediente-zenbakirik.
- Ukatu egiten du AEFko zuzendari teknikoak eta presidentek aitortutako gertaerak -AEFko Diziplinako epaile bakarrak onartu egin ditu, bestelako frogarik edo lekukotasunik eskatu gabe eta bere alegazioei jaramonik egin gabe- egiazkoak direla. Hala, bere bertsioa eman du, eta horren arabera, txartel beltza erakutsi bezain laster alde egin zuen kiroldegitik.
- Diziplina Arautegiko 37. artikuluan aurreikusitako ezohiko prozedura jarraitu da. Prozedura hori aurreikusten da, hain zuzen, jokoan arau-haustek daudenean edo kirol-lehiaketa baten ondorioz arau-haustek daudenean. Beraz, Diziplina Arautegiko II. tituluko I. atala aplikatu behar da, bertan jasotzen baitira jokoan eta lehiaketan egon daitezkeen arau-haustek, baita arau-hauste horiei dagozkien zigorrak ere.
- Gertaerak protesta soil gisa hartu behar dira, arautegi ezberdinen inguruan sortutako tentsio eta desadostasunen ondorio gisa. Hortaz, gertatutakoa ezin da falta oso astuntzat jo, DAren 8. artikuluekin bat etorriz. Artikulu horretan tipifikatutakoaren arabera, arau-hauste oso astuntzat joko da kaltegarria denean. Kasu honetan, ordea, ondoriorik gabeko bultzada txiki bat besterik ez dugunez, ezin da erasotzat hartu.
- Akats bat egon da arautegia aplikatzean; izan ere, errekurritutako ebazpenean jasotako zenbait gertaera egiazkoak baldin badira, arau-hauste oso astunak eragin ahalko lituzkete -AEFDAko 15.h) eta q) artikuluan aurreikusia-. Kasu honetan, ordea, diziplinako epaile bakarrak jarraitu du prozedura, baina ez dagozkion beste atal baten katalogazioa eta zigorrak aplikatu ditu. Beraz, akats bat sortu da arautegia aplikatzean.



- Ez du aukerarik izan bere bertsioaren berri emateko, horregatik egin du errekurtsio honen bidez. Hala, adierazi du probokazio eta errespetu faltaz beteriko jarrera hori ikusita izan zuela erreakzio hori, eta kirol instalaziotik alde egin zuela txartel beltza erakutsi ziotelako, baina ez dela kontuan hartu damutu izanaren aringarria. Izan ere, instalaziora itzuli bezain laster, barkamena eskatu zion zuzendariari gertatutakoagatik. Epaile bakarrak, ordea, ez du kontuan hartu, ezta bere erreakzioa eragin zuen hasierako probokazio-egoera edota kirol-esparruko bere historian inoiz ere zigorrik jaso ez izana ere.
- Zigor ebazpenean hainbat akats formal daudela argudiatu du, ez baitu zigilurik, irteera-erregistrorik eta espediente-zenbakirik. Hala -eta ebazpenean ez da halakorik esaten-, ez du inola ere onartzen epaile bakarraren gogoetan aintzat hartu den bertsioa. Bertan, frogatutzat ematen dira lehiaketako zuzendariak kontatutako gertaerak, baina ez da gertaera horien inguruko inolako frogarik edo lekukotasunik aurkeztu, eta ez da kontuan hartu damutu izanaren aringarria. Beraz, zigorra neurrigabea eta zorrotza da, eta ez da bidezkoa, DAren II. kapituluko II. atala aplikatu behar baita. Hala, kapitulu horren beraren I. atalean aurreikusitako zigorra ezarri behar da.

Espedientearekin batera aurkeztutako Arabako Esgrima Federazioko presidentearen alegazioen txostenean, hainbat alegazio egin dira errekurtsio-egileak aurkeztutako alegazioen aurka.

Laugarrena- Lehentasunezko interes gisa, errekurtsioan egiten diren alegazioei erantzuteko eskatu da. Alegazio horien bidez adierazten da akats bat egon dela arautegia aplikatzean; izan ere, zigor-espedientea izapidetzean jokoan arau-haustea dauden kasuetarako edota kirol-lehiaketetan arau-haustea dauden kasuetarako nahiz horiek eragindako ondorioetarako aurreikusitako ezohiko prozedura bideratu da, eta kirol-



esparruko arau orokorretarako aurreikusitako zigorra ezarri da, defentsa-gabeziaz, arrazoi horiek aurrera eginez gero, ez litzatekeelako beharrezkoa izango proposatutako gainerakoak aztertzen hastea.

Horretarako, Arabako Esgrima Federazioko Diziplina Arautegian (aurrerantzean, DA) aurreikusitakoa hartuko da kontuan.

DAren I. tituluaren II. kapituluaren I. atalean, jokoaren edo lehiaketaren arau-hausteak agertzen dira tipifikatuta, baita arau-hauste horiek egiteagatik ezar daitezkeen zigorrak ere. 8. artikuluan arau-hauste oso astuntzat edo astuntzat jotzen da epaileen taldeko kide bati edo zuzendaritza-taldeko bati, kirol zuzendariari, taldeetako kideei, ikusleei, edo, oro har, edozein pertsonari eraso egitea. Arau-hauste oso astuna izango da gertaera larria edo kaltegarria izan denean, eta astuna, berriz, tartean arau-hauste oso astunik ez dagoenean. Era berean, arau-hauste larritzat jotzen dira aipatutako pertsonen aurkako mehatxuak, hertsapenak edota egintza iraingarriak.

Arau-hauste horiek egiteagatik dagozkion zigorrak 9. artikuluan jaso dira. Zehazki, honako hauek izango dira: gaitasungabetzea, galarazpena, ohartarazpen publikoa, zigor-ohartarazpena eta isuna.

Bestalde, II. kapituluko II. atalean kirolari buruzko arau orokorren arau-hausteak arautzen dira, eta 14. artikuluan (atal honetako lehenengoa) ezartzen da kirolaren arau orokorren arau-hausteak direla I. atalean jasota ez dauden egintzak edo ez-egiteak, betiere EAEko Kirolari buruzko ekainaren 11ko 14/1998 Legean, EAEko kirol-federazioen urtarrilaren 31ko 16/2006 Dekretuan eta Kirol Diziplinaren Arautegia arautzen duen 7/1939 Dekretuan nahiz Arabako Esgrima Federazioko Estatutuetan eta Arautegi honetan horiek ordeztzen dituen xedapenean aurreikusitakoaren aurka egiten badute.



Hizpide dugun kasuan, errekurtsio-egileari zigorra ezarri zaio 15.1.h) artikuluan tipifikatutako arau-haustearen ondorioz. Artikulu horretan, arau-hauste oso astuntzat jotzen da "*epaileak, kirolariak eta probetan edo lehiaketetan parte hartzen duten bestelako partaideak erasotzea, larderiatzea edo hertsatzea*". Hala, DAren 16.1.e) artikuluan aurreikusitako zigorra ezarri zaio, hau da, urtebetez probak edo lehiaketak egin bitartean, instalazioetara sartzeko debekua.

Kasu honetan, aipatu dugun bezala, errekurtsio-egileari leporatzen zaion arau-haustea DAren II. kapituluaren I. atalean jasota dago. Beraz, 14. artikuluan ezarritakoaren arabera, ez litzateke bidezkoa izango II. atalean aurreikusitako arau-haustek eta zigorrak aplikatzea.

Bestalde, DAren 26. artikulua xedatzen du diziplina-erantzukizunak zehazteko prozedura arrunta eta ezohikoa bideratuko direla, eta lehentasun- eta laburpen-printzipioetan oinarrituta egongo dela. Funtsean, joko edo lehiaketan arau-hausteetan aplikatu ahal izango da.

DAko 37. artikuluan aurreikusten da ezohiko prozedura jarraitzea Diziplinako epaileak berehala esku hartzea beharrezkoa den kasuetan, jokoan edo lehiaketan arau-haustek egin izanagatik edota kirol lehiaketa baten ondorioz, betiere normaltasunez gauzatuko dela bermatzeko.

Hain justu, lehiaketa normaltasunez egingo dela bermatzeko ezarri ahal izango du Diziplinako epaileak aldi berean interesdunen alegazioak (alegazioak ahozkoak izan daitezke) eta frogak aplikatzea. Horien artean, garrantzi berezia izango dute arbitroaren aktak edo arbitroaren nahiz Federazioko ordezkariaren txostenak. Hala, bertan behera geratzeko agindu ahal izango da, lehiaketa normaltasunez egiteko edo jarraipena emateko behar besteko urgentziak.



Diziplina-prozedura arrunta DAko 31. eta 34-36 artikuluetan araututa dago. Prozedura honi Diziplinako epaileak eman dio hasiera probidentziaren bidez. Interesdunei jakinarazi egin zaie, eta horren ondoren, Diziplinako epaileak frogaldia ireki du (gehenez ere 20 egun naturalekoa eta gutxienez 5 egunekoa). Epe horretan, gertaerak argitzeko eta horietatik eratorritako erantzukizunak zehazteko beharrezkoak diren frogen eginbidea bideratuko du. Frogaldia amaitu ondoren, Diziplinako epaileak plegu bat egingo du. Bertan jasoko ditu karguak, leporatutako gertaerak, aurkeztutako frogen emaitza eta espedientea bertan behera uzteko proposamena. Hori dena interesdunei jakinaraziko zaie, egokitzen jotzen dituzten alegazioak egin ditzaten. Horren ostean, Diziplinako epaileak ebazpena emango du: hasieran eginiko proposamenari eutsiko dio edo aurkeztutako alegazioen arabera moldatuko du.

Hizpide dugun kasuan, ez da justifikatzen errekurtsio-egileari leporatzen zaion arau-haustean beharrezkoa zenik diziplina-epaileak berehala esku hartzea lehiaketa normaltasunez egitea bermatzeko; izan ere, "Arabako V. Superkoparen gorabeherak" izeneko dokumentua (lehiaketaren zuzendari teknikoak sinatua) aurkeztu ondoren eman zitzaion hasiera espedienteari.

Kasu honetan bideratu den diziplinako ezohiko prozeduraizapidetzean, zigortuari izapide bakarra onartu zaio: hiru eguneko epea, espedienteari hasiera eman zitzaionetik ebazpena eman arte. DAN, ordea, bestelako izapideak eta epeak ematen dira, eta zigortuaren defentsa-berme gehiago ematen dira. Berme horiek errespetatu egin behar dira defentsa-gabeziarik egon ez dadin, are gehiago, kasu honetan, zigor larria ezarri dela kontuan hartuta.

Administrazioko zigor-prozeduran, berme-sistema ixteko klausula da defentsa-gabeziaren debekua. Hala, beharrezkoa da defentsarako benetako



aukerak babestea esparru horretan. Kasu honetan, ordea, ez da halakorik gertatu, ezohiko prozedura bideratu baita ohiko prozedura bideratu beharrean.

Adierazitakoa aintzat hartuta, bidezkoa da jarritako zigorra baliogabetzea, zigor hori ez datorrelako bat leporatutako arau-haustearekin, eta prozedura desegokia jarraitu delako. Gainera, EEko 24. artikuluan jasotako defentsagabeziaren debekua urratu da.

Bosgarrena.- Aurrekarietan adierazi den bezala, KJEB honek 2015eko martxoaren 16an hartutako Erabakiaren bidez, onartu egin zuen Arabako Esgrima Federazioko Kirol Diziplinako epaile bakarrak 2015eko urtarrilaren 2an emandako Ebazpenaren bidez errekurtsio-egileari jarritako zigorra kautelaz eteteko eskaria.

Urriaren 18ko 310/2005 Dekretuak, Kirol Justiziako Euskal Batzordea sortu eta arautzen duenak, hau ezartzen du 17.4 artikuluan: "*Erabakitako kautela-neurriak indarrean egongo dira espedientea izapidetzen den bitartean, harik eta behin betiko ebazpenaren bidez berretsi edo bertan behera uzten diren arte (...)*".

Hortaz, errekurtsioa ebatzi ondoren, bidezkoa da hartutako kautelazko neurria baliogabetzea.

Horren guztiaren ondorioz, Kirol Justiziako Euskal Batzordeak honako hau

ERABAKI DU:

1.- Onartzea [REDACTED] (e)k Arabako Esgrima Federazioko Diziplinako epaile bakarrak 2015eko urtarrilaren 2an emandako ebazpenaren aurka jarritako errekurtsioa eta ezarritako zigorra bertan behera uztea, hau da, urtebetez



kirol probak eta lehiaketak egin bitartean kirol-instalazioetara sartzeko debekua. Egintzak diziplina-espeditatea abiarazi zen egunera atzeratu behar dira, Arabako Esgrima Federazioaren Diziplina Arautegiaren 31. artikuluan eta ondorengoetan ezarritakoarekin bat etorritz izapidetu behar baitira.

2.- KJEB honek 2015eko martxoaren 16ko Ebazpenaren bidez zigorra kautelaz eteteko neurria altxatu eta bertan behera uztea.

Erabaki honek administrazio-bidea amaitzen du. Beraz, bere aurka aukerako berraztertze errekurtsoa jarri ahal izango dute interesdunek Kirol Justiziako Euskal Batzordean hilabeteko epean, erabakia jakinarazi eta hurrengo egunetik aurrera, edo bestela, administrazioarekiko auzi-errekurtsoa aurkez dezakete Vitoria-Gasteizko Administrazioarekiko Auzietarako Epaitegian edo, errekurtso-egileek hala nahi badute, beren bizilekuari dagokion Epaitegian, bi hilabeteko epean, erabakia jakinarazi eta hurrengo egunetik aurrera, halaxe xedatzen du-eta Administrazioarekiko auzien jurisdikzioari buruzko uztailaren 13ko 29/1998 Legeak.

Vitoria-Gasteiz, 2015eko uztailaren 1a

José Ramón Mejías Vicandi

Kirol Justiziako Euskal Batzordearen presidentea